

KOKOTERAINO GAUDE!

Kristau Eskolak eta AICEk Gizarte Ekimeneko ikastetxeen hitzarmenaren negoziazioa blokeatu dute. Beren azken proposamenean eskubideak kentzeko ahalegina berretsi eta negoziatio-mahaia sine die eten egin dute.

Kristau Eskola eta AICE patronalek, atzo, otsailak 2, edukirik gabeko ukitu estetiko batzuk egin eta gero, orain dela bi hilabeteko azken bileran egindako proposamen berdina aurkeztu zuten hitzarmenaren negoziatio-mahaian. Gainera, Gizarte Ekimeneko langileen eskubideak murrizteko saiakerak berretsi egin dituzte beraien proposamenean.

STEILASek egungo hitzarmenetik abiatutako eskubide-murrizketarik gabeko proposamen bat ekartzeko eskatu zien Kristau Eskolari eta AICEri. negoziatioa ahalbideratuko lukeen edukizko proposamena, hain zuzen ere . Baina tematuta daude eta oraindik ere nahi dute:

- Ekoizpenagatiko aldi baterako kontratuak 12 hilabetera arte luzatu, legeak lehen egunetik mugagabeak izan behar dutela esan arren.
- Haur Hezkuntzako lehen zikloan eta Lanbide Heziketan tutoretzaren ordainketa aplikatzeko araubide iragankor bat adostu, hitzarmenak eta epaimahaiek ordaindu behar dutela adierazi arren.
- Lanbide Heziketan 22 orduko eskola-lanaldia ez errespetatu, hitzarmenean 26 ordura arteko eskola-lanaldi arrunta adostuz, inolako konpentsaziorik gabe.
- Gaixotasunagatiko bajaren edo jaiotzagatiko baimenaren kasuan, Gabonetako eta Aste Santuko opor-egun guztiak berreskuratzeko aukera kendu.
- Ikasgelak ixteagatik lanpostua galtzen duten langile finkoei birkokatzeko eskubidea mugatu.

Gainerako edukiei dagokienez, ez dago aurrerapenik. Patronalen proposamenak alde batera utzi ditu STEILASen eskaerak, eta ez du inolako planteamendurik egiten lan zama arintzeko, ezta kolektiborik prekarizatuenean eta feminizatuenean lan-baldintzak hobetzeko ere.

Bereziki iraingarria da beraien soldata-proposamena. Sektoreko langileen soldatak izoztuta daude 2020tik eta 2021eko KPIaren %6,4ko igoera gehi 2022ko %5,4a gure gain hartu behar izan ditugu. Patronalen egoskorkeriak ez dauka ez hanka ez buru. Izan ere, Hezkuntza Sailak 2020tik modulu ekonomikoen bidez beraien finantzazio publikoa %11,5 handitu dien arren, 2021erako %0 planteatzen dute, eta 2022rako % 0,42 DBHn eta % 1,52 Haur eta Lehen Hezkuntzan. Hezkuntza Saila desagertuta dago, ez ditu gure bilera-eskaerak aintzat hartzen, birkokatzeko akordioa ahaztuta dauka eta ez du ikastetxeen esku jartzen duen diru publikorako kontrol mekanismorik ezartzen.

STEILASek errealitatera egokitutako zentzuzko negoziatio baten alde egiten du, zeinek langileen erosteko ahalmenari eustea eta lan-baldintzak hobetzea ahalbideratuko lukeen. Baina patronalak ez dira maila ematen ari, ez dira erantzukizunez jokutzen ari eta, argi eta garbi, gatazka berriro sortzeko hautua egin dute; langileoi mobilizazioen bidea besterik utziz. **Argi izan STEILASek borrokari eutsiko diola!**

KOKOTERAINO GAUDE!

Kristau Eskola y AICE bloquean la negociación del convenio de Centros de Iniciativa Social. En su última propuesta se reafirman en su intento de eliminar derechos e interrumpen sine die la mesa de convenio.

Las patronales Kristau Eskola y AICE presentaron ayer, 2 de febrero, en la mesa de negociación del convenio la misma propuesta que hicieron hace dos meses en la última reunión con algunos retoques sin contenido y que, además, pretende recortar los derechos del personal de los Centros de Iniciativa Social.

STEILAS pidió en la última mesa de convenio a Kristau Eskola y AICE que trajeran una propuesta que no incluyera recortes de derechos, que tomara como punto de partida el actual convenio y con contenidos que permitieran activar la negociación. Pero siguen pretendiendo:

- Ampliar los contratos temporales por circunstancias de la producción hasta los 12 meses cuando la ley dice que deben ser indefinidos desde el primer día.
- Acordar un regimen transitorio de aplicación del pago de la tutoría en el primer ciclo de infantil y en la FP a pesar de que el convenio y los tribunales les obligan a ello.
- No respetar la jornada lectiva de 22 horas en los centros de FP acordando en convenio una jornada lectiva ordinaria de hasta 26 horas sin ninguna compensación.
- Eliminar la posibilidad de recuperar todos los días de vacaciones de Navidad y Semana Santa en el caso de baja por enfermedad o permiso por nacimiento.
- Limitar el derecho a la recolocación del personal fijo que pierde su puesto de trabajo por cierre de aulas.

En cuanto al resto de contenidos, ningún avance. La propuesta patronal obvia las demandas de STEILAS y no hace ningún planteamiento para aligerar las cargas de trabajo ni para mejorar las condiciones laborales de los colectivos más precarizados y feminizados.

Especialmente insultante es su propuesta salarial. Los salarios de las trabajadoras y trabajadores del sector están congelados desde 2020 y estamos soportando una subida del IPC en 2021 que llegó al 6,4% y otro 5,4% en 2022. La cerrazón de las patronales es un sinsentido ya que, a pesar de haber visto aumentados su financiación pública a través de los módulos económicos en un 11,5% desde 2020 por el Departamento de Educación, plantean para 2021 un 0% y para 2022 subidas del 0,42% en ESO y el 1,52% Infantil y Primaria. El Departamento de Educación sigue desaparecido, no atiende nuestras solicitudes de reunión, tiene en el olvido el acuerdo de recolocación y tampoco establece los mecanismos de control para el dinero público que pone en manos de los centros.

STEILAS aboga por una negociación razonable en la mesa de convenio ajustada a la realidad, con planteamientos de contenido que hagan mantener el poder adquisitivo y mejorar las condiciones laborales. Pero las patronales no están a la altura, no están actuando con responsabilidad y optan, claramente, por provocar, de nuevo, el conflicto; obligando a las trabajadoras y trabajadores a movilizarnos. **Argi izan STEILASek borrokari eutsiko diola!**